

Irakaskuntza helburuak

Gradu honen helburu nagusia ingurumen arazoak konpontzeko oinarrizko prestakuntza sendoa eta teknologia industrialen ezagutza duten gradudunak prestatzea da.

Graduak ingurumenaren kutsadura eta kalitate arazoei aurre egiteko industrian erabilitako operazioen, prozesuen eta tresnen ezagutza sendoa emango dio ikasleari.

Ikasten diren gaiak

- Jariakinen mekanika eta beroaren transmisioa, termoteknia.
- Tresna eta prozesu industrialen diseinua, kudeaketa industriala.
- Iraunkortasun prozesuen ingeniartzaketa.
- Ingurumen ingeniartzaketa, kutsadura kontrolatzea eta gutxitzea.
- Ingurumen kudeaketa eta ingurumen ikuskatzea.

Graduak ingurumenaren, kutsadura mota ezberdinen, ingurumen kalitatearen eta aplikatu daitezkeen konponbide eta tratamenduen ikuspegi osoa ematen du.

Kredituen koadroa

Kreditu kop. guztira: 240 ECTS

Irakasgai modulua	Eskainitako kredituak	Egin beharreko kredituak
Oinarrizko prestakuntza	60 ECTS	60 ECTS
Oinarrizko prestakuntzan sakontzea	18 ECTS	18 ECTS
Ingurune Naturalaren oinarrizko zientziak	18 ECTS	18 ECTS
Ingurumen Ingeiniartzari dagozkion irakasgaiak	54 ECTS	54 ECTS
Hautazkotasuna	102 ECTS	30 ECTS
Gradu amaierako lana	6 ECTS	6 ECTS

ECTS: European Credit Transfer System (Kreditu Transferentziako Europar Sistema)



Irtenbide profesionalak

Baliabideen kontsumo iraunkortasunik gabea, hondakinak sortzea eta uren, airearen eta zoruen kutsadura bezalako arazoak aurrean, Ingurumen Ingeiniartzako gradudunaren berariazko eginkizuna da ingurumeneko kalteei aurrea hartzea, ingurunea babestea eta ingurumen kalitatea hobetzea, ekoizpen prozesuek edo, oro har, giza jarduerak ingurumenaren kalitateari eragitea saihesteko. Horretarako, kutsadura hori sortzea saihesten duten neurriak proposatu behar ditu, prozesu aldaketak ekarriko dituzten teknologia garbiak garatu eta birziklatzeko eta berrerabiltzeko lerroak sartuz. Prozesu horietan sortzen diren isurien eragina minimizatu ahal izateko obrak eta instalazioak diseinatu proiektatu eta eraiki ere egin beharko ditu.

